



AGINDUA, 2025EKO APIRILAREN 25EKOA, ONGIZATE, GAZTERIA ETA ERRONKA DEMOGRAFIKOKO SAILBURUARENA, ONGIZATE, GAZTERIA ETA ERRONKA DEMOGRAFIKOKO SAILAREN 2025-2028 ALDIRAKO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ALDATZEN DUENA

Dirulaguntzen araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 6. artikuluan ezartzen denez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak garatu beharreko dirulaguntzen jarduera aldeztu aurretik planifikatu behar da, eta, horretarako, dagokion Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartuko da.

Plan horrek lortu nahi diren helburuak eta ondorioak jaso behar ditu, horiek lortzeko behar den epearekin eta aurreikus daitezkeen kostuekin batera, bai eta planaren jarraipena eta ebaluazioa egitea ahalbidetzen duten finantzaketa-iturriak eta helburuekin lotutako ekintzak eta adierazleak ere. Nolanahi ere, aurrekontu-egonkortasuneko helburuak betetzearen mende egongo da.

Aurrekoa betetzeko, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko sailburuak, 2025eko otsailaren 21ean, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Sailaren 2025-2028 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzen duen Agindua eman zuen..

Plan Estrategiko horretan jasotako dirulaguntzen artean ez daude Oinarrizko Laguntza Materialerako laguntzak, Plus 2021-2027 Europako Gizarte Funtsak kofinantzatutakoak. Laguntza hori ez dago jasota; izan ere, nahiz eta herritarrei gizarte-zerbitzuen arloan ematen zaien zuzeneko arreta autonomia-erkidegoen eskumena izan, eta laguntzaren kudeaketa abian jartzeko zailtasuna dela-eta, eta pertsona eta familientzako baldintza berdinetan lurralde guztietan ezin ezartzea saihesteko eta prestazioaren jarraipena bermatzeko, programa hasi eta lehen urtean, aldaketa bat izan zen, eta 2024an Gizarte Eskubideen, Kontsumoaren eta 2030 Agendaren Ministerioak kudeatuko zuen, behin-behinean eta aldi baterako, baina autonomia-erkidegoen esku geratuko zen programa osorik kudeatzea 2025ean.

Oinarrizko Laguntza Materialaren FSE+ Programak (aurrerantzean, Oinarrizko Programa) FEAD 2014-2020 Programa Operatiboa ordezkatzeko du, hau da, elikagaiak espezieetan ematea banaketa-erakundeetan eta haien erakunde laguntzaileen bidez. Programa honen berrikuntza nagusietako bat da elikagaien eta higiene-produktuen hornidura-sistemaren ordeztasun-erakundeak edo trukagarriak diren txartelak hornitzeko sistema bat ezartzea, familia onuradunek elikagai freskoak eta beren egoera partikularrean beharrezkotzat jotzen dituzten produktuak eros ditzaten.

Bere helburua da adingabeak ardurapean dituzten eta pobrezia larrian dauden familien oinarritzko laguntza materialaren beharrianari erantzutea. Laguntza zeharka ematen da, elikagaiekin eta oinarritzko higie-ne-gaiekin truka daitezkeen txartel edo txartelen sistema komun baten bidez. FSE+ Programaren konfigurazioak, gainera, hartzaileei laguntzeko hainbat neurri emateko beharra aurreikusten du, oinarritzko laguntza materialaren onuradun diren pertsona eta familia horiek gizarteratzen laguntzeko jarduerak osatzeko.

Bestalde, Dirulaguntzen Plan Estrategikoan, "genero-indarkerian sareko lanean Aurrera egiteko" dirulaguntza Hirugarren Sektore Soziala eta Ekintza Komunitarioa Sustatzeko Zuzendaritzan sartuta dago, eta Bizitza Beterako Laguntzen Zuzendaritzan egon beharko litzateke.

Azaldutakoaren ondorioz, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuak Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografiko Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen urriaren 29ko 320/2024 Dekretuarekin lotuta emandako eskumenak erabiliz, honako hau,

EBATZI DUT

Lehenengoa.- Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Sailaren 2025-2028 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa aldatzea, plan horretan Europako Gizarte Funts Plusak (EGF +) finantzatzutako oinarritzko laguntza materiala sartzeko.

Zehazki, 4. epigrafeko (Dirulaguntzen lerroen laburpena) II. atalari (Hirugarren Sektore Soziala eta Erkidegoko Ekintza Sustatzeko Zuzendaritza) 4. azpiatal berri bat gehitu zaio, "Oinarritzko laguntza materialari buruzko Europako Gizarte Funts Plusaren (EGEF +) kofinantzatzutako laguntzak" izenekoa, eta dirulaguntzen lerro horri buruzko datuak gehitu dira, agindu honen I. eranskinean jasotako baldintzetan.

Bigarrena.- Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Sailaren 2025-2028 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa aldatzea, "genero-indarkerian sareko lanean aurrera egiteko" dirulaguntza behar bezala sartzeko Bizitza Beterako Laguntzeko Zuzendaritzan.

Hirugarrena.- Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografiko Sailaren web-orrian argitaratuz argitara eman dadila agintzea, eta, era berean, ordenamendu juridikoan unean-unean informazioaren eta gardentasunaren arloan aurreikusitako beste edozein xedapen aplikatu dakiola agintzea.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko apirilaren 25ean.

Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko sailburua,

NEREA MELGOSA VEGA



ANEXO I

I. eranskina: Hirugarren Sektore Soziala eta Gizarte Ekintza Sustatzeko Zuzendaritza

Nº Línea	3.2.4	
Objetivo	Gizarte-zerbitzuetako sistema publikoaren garapenean esku hartzen duten eragile instituzional eta sozial guztiekin sareko lana sustatzea eta indartzea..	
Acción	Oinarrizko laguntza materialerako Europako Plus Gizarte Funtsarekin (FSE+) finantzatutako laguntzak.	
Indicador/es	Europako Plus Gizarte Funtsaren Programak (FSE+) definitutako adierazleak	
Órgano Gestor	Dirección de Promoción del Tercer Sector Social y la Acción Comunitaria	
Programa	3123	Gizarte Zerbitzuak
Concesión	Procedimiento	Zuzenekoa, legezkoa
	Beneficiario	Ardurapean adingabeak dituzten pertsonak, batez besteko errenta nazionalaren % 40tik beherako diru-sarrerak badituzte
Compromiso Presupuestario	Importe	3.916.123 €
	Capítulo	4
	% Financiación	100

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO